

LIZARDI-REN GAZTETAKO OLERKIAK (Azkena)

Urte ontako leen-zenbakian asi zan KARMEL Lizardik bere gaztetan argitara emandako leen-olerkiak ateratzen. 1go zenbakian atera ziran zortzi olerki; bigarrenean, 4; eta orain emen dijoaz bost azkenak. Guztitara amazapi egiten dute. Orre-la, *Jaun errukitsuo!* Lizardi-ren olerki-bildumatan argitaratua izanik emen argitara gabe gelditu dan ezkerro, olerkariak EUZKO-DEYA-n argitaratuak 18 dira.

Lizardik (J.M. Agirre zanak) Bilboko Euzkaltzale-Bazkunak atera zuen aldizkari orretan kaleratu zituen bere lenengo euskal-lanak, bertsozkoak eta itz-lauzkoak. Eta ez-izen bi erabilli zituen: Samaiko Zulo eta Zarautzar Sabin. Lenengo olerkia eta lenengo lana aldizkari orren 28garren zenbakian eman zuena du: *Nere lenengo maite-ibilketan*, orain emen irakurleak ikusiko duen lenengo-a, ain zuzen.

Maite-olerkiak dira beste iru: *Maitasunaren illetea*, *Igesi* eta *Izarkitako sua*. Bigarrena, EUZKERA izenduna, Poema luzeago baten zatia, ain zuzen sarrera, dala agiriz da. Aldizkariaren 78garren zenbakian dator, azpian jarraitzeko oarra duela. Baina ez zuten jarraitzerik izan.

Lizardik euskal-bertsogintzan lasai samar jokutzen du. Puntuen zeaztasunari ez dio asko begiratzen. Bertsoen neurriari ere ez. *Igesi* izeneko olerkian zortziko nausiaren neurria darabil. *Nere lenengo maite-ibilketan*, 5-5-5-5- neurria; *Izarkitako sua*, 4 4

4-6koa; *Euzkera* izenekoan, 7-7, 7-6, 7-7-, 7-6-koa, eta *Maitasunaren illetean*, neurri zeatzik ez zaio ikusten.

EUZKO-DEYA eskuratzeko aukerarik ez duenarentzat oierkiok ezagutzeko erea jarri nai izan dio gure aldizkari onek.

L. Akesolo

NERE LENENGO MAITE-IBILKETA

Ura aro alaya
Ta ajolikabe
Amabost urte
Nitun garaya!

Gizondu guraz,
Bururatu zat
Andregaitxo bat
Billatutia.

Uritik bertan
Oi-zan, urtero,
Erromeri bat
Ezin alaigo...

Juan naiz, bada, apain,
Ta ernai begiya,
Edozein neska
Zoratzeko lain.

Alako pozkun
Osagarririk!
Baño nik bai-nun,
Bai, zer-egirik!

Lagun-dei-otsa.
Nun-naitik dantzut:
Batzubek: «lagur»
Bestek: «mora ua?»

Jaramon-ezik,
Darrait aurrera,
Jakiz beteta
Mayen artetik;

Ur gozua emen...
An erroskilla...
Ni, ordia, ben-ben,
Andregai-billa!

Arkituko ez nun
Etsi-zoriyan,
Neska bat dakust
Zuaitz-itzalpian...

Gelditu nintzan
Eta aztertu nun:
Matrail gorridun
Neska ederra zan...

Ura aukerako
Emaztia nitzat...!
«Beste alako bat
Al nun idoro?»

Nere biyotzan
(Bat-batez, noski)
Su-gar bat, ezti,
Piztu zitzaidan.